



IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDEENTZAKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA MUSKIZEN 2024an INGURUMEN JARDUERAK EGITEKO

1. XEDEA

Deialdi honen xedea da Muskizen 2024an naturguneei, sentsibilizazioari eta ingurumenaren babesari balioa emango dieten ingurumen esparruko programa edota jarduera puntualak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeei dirulaguntzak ematea.

2. AURREKONTUA

Ingurumen Sailak 10.000 euroko aurrekontua izango du erakundeen proiektu edota jarduerak laguntzeko.

3. ONURADUNAK

Muskizen kokatutako irabazi-asmorik gabeko erakundeek jaso ahal izango dituzte laguntza hauek, baldin eta indarreko legeriaren arabera eratuta badaude eta dagozkien erregistroetan inskribatuta badaude, eta Muskizko udalerrian Muskizko herritarrentzat interesgarriak diren ingurumen-programak edota jarduerak egiten badituzte aurten.

Ezingo dituzte inola ere dirulaguntza hauek jaso Muskiz kanpoko erakunde edo pertsonak.

4. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KONTZEPTUAK ETA BAZTERKETAK

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak: Diruz lagunduko dira ingurumen-programak, ingurumen-jarduerak eta programa eta jarduera horiek sortutako horniduren eta materialen gastuak.

Ingurumen-programa eta jardueratzat honakoak hartzen dira:

- Naturguneak garbitzeko jardunaldiak
- Espezie inbaditzaileak desagerrarazteko lanak
- Leheneratze lanak
- Basoberritze lanak
- Ingurumen tailerrak eta dinamikak

Hornidura eta materialtzat honakoak hartzen dira:

- Dibulgazio materiala
- Material didaktikoa
- Material pedagogikoa



Bazterketak: Honakoak dirulaguntza deialdi honetatik kanpo geratzen dira berariaz:

- a) Beren izaera edo helburuagatik deialdiaren xedeari esleitutako jardun-eremuekin lotura zuzenik ez duten eskabideak.
- b) Janari- eta garraio-gastuak.
- c) Datu hauek argi eta garbi adierazten ez dituen edozein faktura: hornitzailea eta haren IFZ edo NANA, bezeroa (eskatzailea) eta haren IFZ edo NANA, kontzeptua, prezioa eta, hala badagokio, BEZa.
- d) Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko konpromisoan, Muskizko Udalak baztertu egingo ditu honakoak islatzen dituzten eskaerak: “pertsonak sexuaren arabera gutxiago edo gehiago direla edo sexu-objektu soilak direla adierazten duten irudiak eta eduki mediatikoak, bai eta indarkeria eta, bereziki, emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, hutsaltzen edo bultzatzen dutenak ere”.

5. ESKAERAK AURKEZTEA

Dirulaguntza hauek jaso nahi dituzten erakundeek deialdi honi erantsitako ereduaren arabera aurkeztu beharko dute eskabidea, eta “**Aurkeztu beharreko dokumentazioa**” epigrafean zehaztutako datuak eta dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabea dela edo oinarri hauetan eskatutako baldintzak betetzen ez dituela egiaztatzen bada, hamar eguneko epean hutsak zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko eskatuko zaio eskatzaileari, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

Nolanahi ere, aurreikusitako jarduerari buruzko dokumentazioaz gain, udalak beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango die eskatzaileei, aurkeztutako jarduera baloratzeko.

6. ESKAERA EPEA

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera, 15 egun natural.



7. ESKAERAK EBALUATZEKO ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDEAK

Aurrekontua norgehiagoka-irizpidearen bidez arautuko da, hau da, onartutako eskaera guztien artean banatuko da, bakoitzak lortutako puntuen proportzioan, honako muga hauekin:

Mugak:

- a.- Dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da 10.000 €-tik gorakoa izan.
- b.- Dirulaguntza batek ere ezingo du gainditu onartutako aurrekontuaren zenbatekoaren % 70.

Pertsona edo erakunde eskatzaileek gehienez 100 puntu lortu ahal izango dituzte, honako irizpide hauen arabera:

- 1. Aurkeztutako jarduera edo programaren aurrekontu osoa.....gehienez **75** puntu
- 2. Programaren eta/edo jardueraren xede diren parte-hartzaile kopurua.....gehienez **25** puntu
(10 parte-hartzaileko puntu 1 emango da, gehienez 25 puntu)

8. EBAZPENAK JAKINARAZTEA

Eskabideak ebatzi ondoren, dagokion sailak idatziz jakinaraziko die eskatzaile guztiei, eta, ondoren, zenbatekoak ordainduko dira.

9. DIRULAGUNTZAK JUSTIFIKATZEA ETA ITZULTZEA

Dirulaguntzaren deialdiari dagokion urteko abenduaren 31 baino lehen justifikatu beharko dira, hau da, 2024ko abenduaren 31 baino lehen.

Muskizko Udalak behar bezala justifikatu ez diren zenbatekoak erreklamatuko dizkie diruz lagundutako pertsona eta erakundeei. Justifikazioa ez delako nahikoa edo ez delako zuzena, dirulaguntza baten zati bat edo osoa Udalari itzuli behar bazaio, Udalak hurrengo urteari dagokion dirulaguntzaren zenbateko hori murriztu ahal izango du (halakorik balego), zorraren ordainketa oso edo partzial gisa. Inola ere ez zaie dirulaguntzarik emango aurreko justifikazioak egiteke dituztenei.

Dirulaguntza justifikatzeko honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) Aurkeztutako fakturen eta frogagirien zerrenda zenbakitua.
- b) Aipatutako gastuen fakturak.
- c) Diruz lagundutako jarduera edo programa deskribatzeko eta baloratzeko memoria.
- d) Kartelak, liburuxkak eta argitaratu den publizitate guztia. Informazioa EAEko bi hizkuntza ofizialetan egon beharko da, eta Udalaren logoa ere agertu behar da.

GARRANTZITSUA: Fakturen edo frogagirien zerrenda posta elektronikoz ere bidali beharko da, Excel fitxategi batean edo antzekoan, honako helbide honetara: ingurumena@muskiz.com